

Ez da ezaguna gure artean, baina ibilbide luzearen jabe da Fatima Mernissi. Koraneko testuetan aditua da eta feminismo islamiarrean aitzindarietako. Duela hamar urte zendu zen idazle eta soziologo marokoarra. Haren nobela bakarra, "Terraza debekatua", euskaraz eman du orain Edurne Lazkanok.

Xole ARAMENDI | DONOSTIA


Erein eta Igela argitaletxeen elkarlanaren emaitza da Literatura Unibertsaleko 192. zenbakia, Fatima Mernissiren "Terraza debekatua". Lakuako Gobernuaren laguntza du egitasmoak. Ereingo Inazio Mugika Iraola, Eizie itzultzaileen elkarteko Fernando Rey eta Gasteizko Gobernuko ordezkari Ana Lopez Asensio pozik agertu dira bilduma halako zenbakira iristeagatik.

Fez hirian jaio zen 1940an eta 2015ean hil zen Rabaten Fatima Mernissi. Historialaria, soziologoa eta unibertsitateko irakaslea izan zen. «Genero desberdintasunen azterketan erreferente izatera iritsi zen eta bere lanetan uztartu zituen emakumeen ahalgintza, tradizioaren berrirakurketa kritikoa eta islamaren interpretazio feminista. Saia-kera ugari idatzi zituen; batez ere saiakera egileztat dauka», esan zuen Mujika Iraolak. Fezeko harem batean hazitako

HAUSNARKETA

«Ez da bakarrik harem baten erretratua, bada hausnarketa sakona identitateari buruz, generoari eta askatasunari buruz».

neska baten begietatik kontatua dago istorioa. «Debekuak, ohiturak, askatasun gosea, eguneroko bizitza, elkartasuna



Edurne Lazcano, atzo, Donostian.

Jagoba MANTEROLA | FOKU

eta ahizpatasuna, eta gatazkak. Ez da bakarrik harem baten erretratua, bada hausnarketa sakona identitateari

buruz, generoari eta askatasunari buruz», gaineratu zuen.

Muga fisiko zein sinbolikoak, debekua, eta aldi berean,

amets egiteko lekua dira liburuaren muinak. Pertsonaien indarrari erreparatu zien atzo Edurne Lazkanok. «Asko azaltzen dira, pisu handikoak, emakumeak asko. Eta horrekin batera, harema inguratzen duen harresia».

Mugak dira, hain justu, gai nagusietako bat protagonistak jazmina amonarekin dituen solasaldi luzeetan. «Hark esango dio harem-ak 'debekatua' esan nahi duela. Arauei lotuta dagoela. Azalduko dio haremetik kanpo ere toki guztietan daudela arauak, arau ikusezinak. Eta horrek seko beldurtzen du Fatima, 'ikusten ditugun arauak betetzea zaila baldin bada, ikusten ez ditugunak...', pentsatzen du». Hala laurbildu zuen itzultzaileak protagonistaren kezka.

2025eko GABONAK GARAko komunitatearentzako eskaintza berezia

Kataluniako kalitatezko cavak
Bi Brut de Brut Maria Casanovas cava botilako sortaESKAERAK
EGITEKO:

Harpidedunek:
Mezu elektronikoari
erantzunez

Naiz Denda:
denda.naiz.eus

Arreta zerbitzua:
943 31 69 99

Zure hurbilekoei
oparitzeko
ere aparta

Adierazi eskaeran
eta etxera
eramango diegu

Kutxatila dotore batean aurkeztuta

Eta aurten, tapoi hermetiko bat,
Euskal Herriko armarrria daukana, OPARI!

SORTA BAT
(bidalketa-gastuak aparte)

25
euro

Eskaintza berezia
BI SORTA
(bidalketa-gastuak aparte)

45
euro

GARA